



Testua eta argazkiak
Mikel Arrizabalaga

Ekialdeko jendea

SONAM-ek bere "khangpa" erakutsi digu. Ez da ohiko etxe bat. Himalaiako ortzia du sabaitzat eta inguratzen duten izotzezko mendi garaietatik esekitzen diren baso eta haran biluztuek mugatzen dute albo guztietatik. Ilargi eta eguzkiaren taupaden erritmoaren baitan mugitzen diren herri eta bazter ederrak, denborak beste dimentsio bat hartzen duen paisaia erakargarria, natura guztiaren jabe den espazio harmoniatsua, sentimenduak loratzen laguntzen duen sehaska kulunkagarria, ehunka urteko usadioei loturiko xerpa herriaren bizilekua... Sonam-en "khangpa" ez da ohiko etxe bat. Bizitza oso bat da. Bizia den bizitza oso bat.

LUKLA-RANTZ

Hegazkin txikiaren leihotik *Kathmandu*-ko paisaiari so geratu gatazko. Gure mendean budisten estupak, kale zala-partatsuak, *Bagmati* ibaiak marrazten duen lerro irregularra... hamaika postal koloretsu, bizirik irauteko hamaika espazio desorekatu, bizitza itzaltzeko hamaika bazter ezkutu. Himalaiara gerturatzen goazen heinean, berehala ohartu gara haran eta mendi gandorretan lerro meheak marrazten dituzten bidezidorrak infinituan galtzen direla eta mendien magalak bortizki amiltzen direla ibaietan ito arte. Ertzik gabeko panoramika mugagabearen sinfonia. Dena da txikia eta handia aldi berean. Eta neurririk gabeko eszenatoki honetan miniaturazko mundu bat, gertutik, baren-barrenetik ezagutu nahi dugun mundu erakargarria, naturaren altzoan piztu eta lokartzen den xerpen "khangpa".


Haran eta mendi gandorretan lerro meheak marrazten dituzten bidezidorrak infinituan galtzen dira

Mikel Arrizabalaga Aizpurua (Donostia - Eibar, 1957): Elkar Fundazioko kudeatzailea da 1997tik eta 2011 arte Martin Ugalde Kultur Parkeko kudeatzailea. Aurretik, 17 urtez irakasle izana da Orereta eta Zurriola ikastoletan, eta Donostian ospatu zen Kilometroak 95eko koordinatzailea. Gaur egun, Ikaslekar argitaletxearen edizio zuzendaria da. Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. 1997an Sua argitaletxearekin Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza liburua eman zuen argitara.


*Paisaia bada poema ere,
inola ere ez da mutu;
nori bere estrofa diotsa
harmoniatu bezain altu.*

Bitoriano Gandiaga, *Izadiminez*

■ Mendizaleak Cho La Pass-era heldu aurretik atsedena hartzen. Atzean Kangchung mendia



EL artículo describe uno de los recorridos que mayor interés despierta en el mundo de la montaña a escala mundial: la visita de Nepal, Kathmandu y el campo base del Everest es uno de los destinos más ansiados por todo amante de la montaña, pues permite asomarse a los espectaculares paisajes que envuelven las montañas más altas de la tierra. Además, para quien acostumbre a viajar con la mente abierta y sin ánimo colonial, el contacto con el pueblo sherpa que habita los ásperos valles del Himalaya resultará igualmente motivación básica para plantearse un viaje de estas características.



■ Nuptse, Everest eta Lhotseko pareta tzarra Tengbocheko monasteriotik

zuhaitzen artean ezkutaketan, loreak bildu eta irribarre zabal batez gure argazki kameraren klik-a noiz egingo zain. *Kusum Khangkaru* mendira garaiaren magaletan eguzkiaren azken izpiak irrisatzen hasi direnerako *Phakding*-era heldu eta bertan igaro dugu lehen gaua.

Bezperan piztutako neurririk gabeko jakin minez abiatu gara *Dudh Kosi* ibaiaren paraleloan marrazten den bidezidorrean zehar. Tarteka, erakargarriak bezain zirraragarriak gertatu zaizkigun kablez eta burdinez eginiko zubi esekiak zeharkatu eta maldan gora abiatu gara. Emeki-emeki heldu gara xerpa herriaren hiriburura, *Namche Bazar*-era hain zuzen ere. Igitai itxura duen haran malkartsu batean gora egiten duen herri honek anfiteatro baten harmailetan etxeak barreiatzen diren argazki koloretsua eta bizia du. Xehetasunik galdu gabe, herria, herritarrak eta hauen bizimoduaz egutuz asmoz kale artean galdu gara, merkatuko anabasa, monasterioaren misterioa, dendarien zalaparta eta paisaiaren babesean.

Zerumuga ebakitzen dituzten mendi garaiak begiztatu orduko ohartu gara *Sagarmatha*-ko atarian gaudela, baina hegazkin txikia sakanerantz jaisten hasi denerako paisaia ahaztu eta izuak urduri jarri gaitu. Azkenean, *Lukla*-ko aerodromoan lurra hartu dugu. Mendizaleen motxilak eta petateak garraiatzen dituzten zamaketariek beterik daude bazterrak, rupia batzuen truke hurrengo egunetarako lana emango diegun esperoan. Harrabots honetan galdurik norbaitek gure izenak ozenki bota ditu airean. *Sonam* da, datozen hamabi egunetan bide erakusle eta bidelagun izango dugun xerpa, eta haren ondoan gure zama bizkarrean garraiatuko duen "rai" etniako *Ram* gaztea.

Izen iradokitzailea duen *Paradise* lodge-an lehen tea dastatu eta berehala murgildu gara *Lukla*-ko kale estu eta luzean. Paisaia berriari so zirrarak hartu gaitu eta metro gutxiren buruan begiak ezin ase ekin diogu geure abentura honi. Azken etxea atzean utzi eta *Sagarmatha*-ko lurraldera ongi etorria ematen duen ataria gurutzu aurretik, jainkoei zuzendutako otoitzak irudikatzen dituzten gurpilak dantzan jarri ditugu errekuak egin eta desirarik gizatiarrenak eskatuz. Beteko ote?

XERPEN HIRIBURUAREN KOLORE FESTA

Bat batean, andanan doazen turista, mendizale eta zamaketariaren joan-etorri etengabea murgildu gara. Bazter guztiei so eta geure ingeles traketaz baliatuz, *Sonam*-i galdezka hasi gaitzaizkio begien aitzinean agertzen zaigun guztiaren esanahi eta arazoak jakin guran. Pazientzia handiz eta beti irribarre zabal batez, bere *khangpa*-ren sarreran deskubrituz goazen guztiari izena eta izana jartzen dio, bere etxea apaindu eta edertzen duten zoko eta xehetasunen azalpen neurtuak, gure interesa asetzeko lain. Eskolara doazen umeen algaraz biziak gure arreta bereganatu du,

Igitai itxura duen haran malkartsu batean gora egiten du Namche Bazar, xerpa herriaren hiriburuak

Biharamunean, *Sonam*-ek Haran Berdean kokaturik dagoen *Khumjung*-era joan eta bere jaiotetxea ezagutzera gonbidatu gaitu. Masailak eguzkiaren indarrez belztuta dituen haren amak hartu gaitu, atseginez, te bat hartzen dugun bitartean bere etxe xumearen gela apalak erakutsiz. *Thamserku* eta *Kang Tega* mendi garaien gailur eta izotzezko magalei begira amets egiteko beta hartu dugu segidan, ezinezkoa zaigun hori eskura izango bagenu legez. *Namche Bazar*-era itzuli eta gauak lagundu digu ametsa betetzen.

GOKYO HARANAREN BILUZTASUNA

Egunsentiaren argitasunarekin batera, nagitasunak astindu eta *Namche Bazar*-reko eskailera amagabeetan soseguz egin dugu gorantz. Lehen bihurgunera iristean, gure etxean argazki eta irudietan maiz ikusi eta amestu ditugun munduko mendi garai eta ederrenak aurrez aurre paratu zaizkigu: *Ama Dablam*, *Nuptse*, *Lhotse* eta bi hauek lotzen dituen harresi ikaragarriaren gainetik bere buru ilun lurruntsua erakutsiz *Sagarmatha* (*Everest* edo *Chomolungma*). Zirrarek azkar kilikatu dute gure barrena, elkarri begiratu diogu, mutu, dakusagun paisaiaren bakarriketari erne, detaile-rik galdu gabe, *Sonam*-ek iratzarri gaituen arte.



Tawoche, Cholatse eta Arakam Tse mendien paraleloan zabaltzen den bideak paraje berrietara gerturatu gaitu. Mugagabeak diruditen magalez osaturiko lur biluztuak, lortezinak ematen duten izotzezko mendi gailur zorrotzez marrazturiko zerumuga amaigabea. Errododendro bakan batzuek eta te landare basatiek lekua aurkitu duten *Gokyo* haranaren altzoan gaude. Eta eszenatoki erraldoi honen hondoan, *Cho Oyu* menditzarraren presentziak inguratzen gaituen paisaiaren collage perfektuari falta zaion azken pieza ezin ederragoa. *Gokyo Ri*-ko gailurrera (5357 m) igo eta jainkoei eskainitako ifrentzu usain artean 360°-ko panoramika bikainaz gozatu dugu luzaroan, isilik, paisaiatz maitemintzeko ahaleginduz, naturak erakusten duen indarra liluratuz.

KHUMBU GLAZIARRAREN HANDITASUNA

Bezperan egindako elurrak bazterrak zuritu eta neguko giroa nagusitu da isiltasuna jabe den paraje eder hauetan. Erritmo motelaz *Cho La Pass*-eko lepora (5368 m) zuzentzen den xenda estu eta pikoa jarraitu dugu. *Nirekha Peak*-en magaletik ihesean doazen izotzezko bloke erraldoi eta mehatxatzaileek erakarri dute gure atentzioa, askatu eta gure mendean hautsiko ote diren beldur. Glaziarraren zehar bete ditugu hurrengo minutuak, ezker-eskuin zabaltzen zaigun ikuspegi dotoreari so. Kasik bost mila metrotan gaua igaroko dugun *Lobuche*-ko lodge-ra iristean nekea gailendu zaigu eta afari oparoaren ostean, ohe xumeak eskaini digun espazioaz jabetu gara hurrengo egunak opari egingo dizkigun ezustean esperoan.

Egungentziaren argitasunak iratzarri gaitu. Teak berotutako edalontzia esku artean estutu eta zurrut txikiak eginez gorputza girotu dugu. *Gora Shep*-era heldu eta bat batean, *Pumori, Lingtren, Khumbutse* eta *Nuptse* menditza-

rren izotz eta haitzezko zirku perfektua agertu zaigu aurrez aurre. Eta hauen altzoan *Sagarmatha* eta *Lhotse*-ra igotzeko oinarrizko kanpamendua, glaziarraren gainean eraikitako kolore anitzeko herrixka. *Kala Patthar*-eko gailurrera (5545 m) heltzean, haizeak bortizki astintzen dituen otoitz-zapi koloretsuek egin digute harrera. Munduko mendi garaienari so geratu gatazkie, bere buru ilunari darion lurruna airean barreiatzen delarik. Mutu geratu gara inguratzen gaituen paisaiarekin, geure begiek dakusaten irudiek hitz egiten digute soilik.

Oinarrizko kanpamenduari bisita azkarra eta etorritako bidetik itzuli gara. *Khumbu*-ko glaziarrari diosala egin eta haranean zehar jaitsiz atzean utzi ditugu *Lobuche, Periche* eta *Pangboche* herrixkak. *Tengboche*-ko monasteriora heltzean ezin izan dugu ekidin begirada goi mendietara zuzendu eta sei mila metrotan gaindi zutitzen diren gailurrekin liluratzea, serac-jauzi itzelak jausti eta oreka miragarrian mantentzen diren tontor zorrotz helezinak. Erraldoi hauen mendean lasai dirau monasterioaren bizitzak, egungentzi eta arratseko monjeen otoitzen erritmoan, naturak airean musikatzten duen konpasean.

Bizitzak normaltasunez darrai Nepalgo goi haranetan; nekazariak beren soroetan lanean, umeak eskolarako bidean, agureak egurrezko eserlekuetan berbetan... gizarte bat bere eguneroko errutinan murgildurik bizi da. Collage honek, inguratzen gaituen haitz eta izotzezko eszenatoki zoragarria bezainbeste liluratatu gaitu. Ibilaldi honen azken eszena *Lukla*-ko aireportu txikian bizi izan dugu, *Sonam* eta *Rai* agurtu eta noizbait berriro itzuliko garela promesa egitean. Lagun maitagarriak besarkatu, hegazkin txikian sartu eta sherpen *khangpa*-tik urrutiratu gara tristoraz. Laster arte!

Kathmandu-ko kaosean murgildu gara. *Swayambunath*-eko amaierarik gabeko es-

kaileretan gora, Pashupatinat-eko *Bagmati* ibaian errauste zeremonietan erretako gorpuen kearen arrastoean, *Bodhnath*-eko stuparen inguruan monje budisten otoitzen itzulian, *Patan*-go tenpluen artean jiran, *Indra Chowk* eta *Asan Tole*-ko kaleetako zalaparta amaigabea galdurik... Atzean geratu dira hamabi egunez *Sonam*-ekin ezagutu eta gozatu ditugun *Gokyo* eta *Khumbu*-ko haranak, xerpen herrixka koloretsuak, isiltasuna eta ifrentzuaren usaina nagusitzen diren budisten monasterioak, merkantziak zamaturitako yak ilara luzeak, *Dudh Kosi* ibaia gainditzeko zubi esekiak, *Tengboche*-ko magaletan loratzen diren errododendroen distira... eta batik bat *Himalaiako* zerua egunero marrazten duten xerpa ume maitagarrien irribarrea.

Atzean geratu dira hamabi egunez Sonam-ekin ezagutu eta gozatu ditugun Gokyo eta Khumbu-ko haranak

Hau guztia da Sonam-en "khangpa", hau guztia da Sonam-en etxea, mugarik ez duen mundua, imajinazioak ihes egiten duen espazioa adeitsua, gizakiaren ezkutuko sentimenduak ernetzen dituen lur zirrargarria. Danebad Sonam! Danebad zure etxearen ateak parez pare irekitzeagatik, haren erraiak erakutsi eta gozatzen uzteagatik, gure ezkutuko sentimenduak azalarazteagatik. Danebad Sonam, mutu ez den zeure paisaia gurekin partekatzeagatik.

■ *Zamakataria Khumbu haranean*



Xerpak



■ Khumjung-eko ume xerpa

■ Pangbocheko agurea



■ Rai etniako Ram eta Sancha zamaketariak

■ Khumjung-eko monasterioko Maniak

tzen dena, eta ohikoa da laborantzan ere ikustea beren senarrak gidari edota zamaketari lanetan dabiltzan bitartean. Familien artean ere ez dago berdintasunik, lehen yak talde handienak zituzten familiak ziren aberatsenak, baina gaur egun aberats berriak daude. Xerpa askok turismoaren goraldia baliatu dute negozio berria jarri eta arrakasta edukitzeko: lodgeak, jatetxeak, trekking agentziak... Aberats eta txiroen artean zegoen aldea areagotu egin dela esan daiteke.

XERPA HERRIA munduko mendi garaie-
nen magalei erantsita bizi da aspaldida-
nik baina, azken hamarkadetan ugaritu diren
trekking eta alpinismo joera desberdinak
xerpa komunitatea eraldatzen ari direla esan
daiteke. 1953. urtean Edmund Hillary eta Ten-
zing Norgay-k munduko mendi garaiearen
gailurra lehen aldiz zapaldu zutenetik, kasik
isolaturik bizi zen nekazari eta abeltzainen
herri honek mendi-turismoaren boom-a
ezagutu du. Ekonomia aukera berri hauek
zerbitzu eta proiektu on batzuk (eskolak,
ospitaleak...) ekarri arren, bertako kulturaren
hondatzea eragiten ari dira. Zoritxarrez,
beste hainbat kulturarekin duten gehiegizko
harremanak, mendebaldekoarekin batik bat,
ehunka urtetako historia duen herri honen
kultura desagertzeko zorian jarri du.

Xerpa hitzak tibeteraz 'ekialdeko herria'
edo 'ekialdeko jendea' esan nahi du, shar
'ekialde' + pa 'herria' edo 'jendea' eta Tibet-
eko ekialdean dagoen Kham eskualdean
bilatu behar dugu hauen jatorria. XV. men-
dearen erdialdera, xerpek Tibeteko lurralde utzi
eta Himalaiako goi haranetan bizi-tzen hasi
ziren, Nangpa La lepoa (5900 m) gurutzatu
eta munduko mendi garaiearen (Everest,
Sagarmatha edo Chomolungma) magalean
hedatzen den Solo Khumbu haranean jarri
ziren. Beraz, esan dezakegu Solo Khumbu
dela xerpa herriaren etxea (khangpa). Azken
hamarkadetan Nepal-go beste zenbait lurral-
detara emigratu dute, baita Indiako Sikkim,

Assam eta Darjeelingera edota Europa eta
Ameriketara.

Turismoa lur hauetara heldu aurretik, xer-
pak nekazariak, abeltzainak eta merkatariak
ziren baina, atzerritarren etorrerarekin zama-
ketari lanetan hasi ziren, garaiera handietan
lan egiteko zuten egokiera, trebetasuna eta
gaitasuna erakutsiz. Mendebaldeko zibiliza-
zioarekin izandako kontaktuak xerpen
bizimodua aldatu (hondatu?) egin zuen
betiko, ordura arteko jarduerak turismoaren
industriagatik aldatuz. Diruak eta ospeak lilu-
raturik, gidari eta zamaketari lanak beren
kulturaren parte bihurtu zituzten, ohiko egin-
kizunetan aldaketak eraginez. Jakina da
altuerako zamaketari xerpak ezinbestekoak
bihurtu direla munduko mendi garaiearen
gailurrak zapaltzeko orduan (zamak gar-
raiatu, sokak jarri, bideak ireki, erreskatetan
parte hartu...), baina egun langile kualifikatu
gisa hartzen badira ere, mendebaldeko askok
"mendiko morroi" gisa tratatzen ditugu.
Ez dugu ahaztu behar himalaiazale batek
emango dituen lehen urratsak, beti zama-
ketari baten sorbaldaren gainean emango
dituela.

Xerpa gizartean klanen sistema erabiltzen
da ezkontza kontuak erabakitzeko. Egun
18 klan daude eta identitate aitarien bidez
har-tzen da oinordetzan. Ohikoa da xerpa
batek bere klanekoa ez den emaztea aukera-
tzea. Xerpania (emakume xerpa) da etxe-
ko lanak egin eta seme-alabak hazteaz ardura-

Xerpa askok turismoaren goraldia baliatu dute negozio berria jartzeko: aberats eta txiroen arteko aldea areagotu egin da

Xerpa kulturak, erlijio budistaren (budismo lamaista) eraginpeko mito eta elezaharren artean eboluzionatu du mendeetan zehar. Doktrina budistaren ikur diren estupak (chor-ten) leku askotan daude. Erlikiak gordetzeko erabili ohi dira, baita erromes bideak seinatatzeko ere. Kanpoaldean sanskrito idatzitako *om mani padme hum* mantra ezaguna edota budisten zortzi zeinu iragarleen marrazkiez osatuta dauden kolore anitzeko otoitz-gurpilak ugari dira paraje hauetan. Eta hauen ondoan ohikoa da otoitz-banderatxo koloretsuak ere ikustea, bidean ez ezik, mendien gailur edota igarobideetan ere jarri ohi direnak. Lurrean ilaran jarrita edota metatuta, mantrez zizelkatutako harri eta harlauza multzoak (mani) nonahi daude eta hauek beti ezkerretatik inguratu behar dira geure desirak betetzea nahi badugu. □